



EHUN HEGOKO HEGAZTIA

Haur liburuarena benetan da kalejira luzea. Liburuaren atzetik, jatorrian, imajina bat, emozio bat edo ideia bat dago, idazleak landu duena, editore batek edo Lizardi bezalako Sari bateko epaimahaiak aintzat hartu duena, marrazkilari batek bere ilustrazioetan jaso duena, argitaletxe batean maketatu dutena, inprenta batek plazaratu duena: eta denak dira beharrezko liburua sortuko bada.

Liburuaren ondotik ere hedabideetako kazetariak daude, eta kritikoak, eta liburuaren zabalkundean lagunduko duten elkarteak –Galtzagorri, EIE, Euskal Irudigileak, EIZIE...–, eta erakundeak, eta bibliotekariak, eta liburu saltzaileak, eta irakasleak –oi, maisu-maistrak!–, eta irakurle klubak, eta letrazaurituen webguneak eta bilguneak: eta denak dira beharrezko liburua geure eskuetara iritsiko bada.

Alabaina, haur liburuaren kalejira luze honetan haur ñimiñoa dugu benetako ardatz eta gako. Haurra arrain izan zen amaren baitan, eta txori bihurtu zen jaiotzean, baina denboraren poderioz hegorik gabe utzi izan dugu. Walter Benjaminen esanetan, haurrak ditugu mundu magikoaren azken biztanleak: haientzat, dena da biziduna, dena mintzo zaie, haurrak dena izan daitezke. Eta kontua da phono sapiens –ustez– helduok mundua erabat desenkantatu diegula, eta, naturatik urrundurik, haurra erabat digitalizatu eta hiperestimulatu dugula, eta lekuko eta ikusle huts bihurtu: urritu egin dugu haurren begirada harrিতua, ahuldu egin dugu haien jakinmina, kamustu haien irudimena.

Rilke poetak zioen amets egiteko sortuak garela, baina, bizitzeko organo egokien faltan, hegan egin nahi luketen arrainak baino ez garela. Nork jakin: agian liburuak dira organo egoki horiek, gregeriak zioen bezala liburuak izan ditzakegu hego, liburua ehun hegoko hegaztia baita. Antzeko zerbait aldarrikatzen zuen Gasteizko Unamuno institutuan gazteren batek amorrut egindako grafitiak: «Buruan txoriak ditudala esaten didazue; hala ere, zuen kaiolak baino nahiago ditut nik». Zeren liburuaren kalejira honetan gaztea ere baitugu benetako ardatz eta gako, aspalditxoan irakurtzeari utzi diona, mesfidantzaz begiratzen diguna.



ZARAUZKO UDALA

Beharbada irakurtzea ez da beharrezkoa, agian bizitza da beharrezkoa, geure bizitzen protagonistak izatea. Edonola ere, poesia –grezieraz, poiesis– zerbait miresgarria sortzen laguntzea da. Eta haurrek eta gazteek sortzeko dohain aparta dute: idazten dute, marrazten dute, dantzatzen dute, antzetzten dute, kantatzen dute... Bai: litekeena da irakurtzea beharrezkoa ez izatea, baina argi dago irakurketak bizitzen eta sortzen laguntzen duela, enpatia eta sentiberatasuna pizten: eta, funtsean, dena da ezinbestekoa, batez ere haurrak eta gazteak ditugu beharrezko mundua berriro poetizatu nahi badugu.

Emily Dickinsonek lagunentzako kartazalak poemekin eta marrazkiekin apaintzen zituen, hegoak eskaintzen zizkigun bere Envelope Poems haietan: «Bizitza dugu sekreturik delikatuena, gure zeregina hura xuxurlatzea da».

Zarautzen 2024ko apirilaren 2an,

Patxi Zubizarreta



LIZARDI SARIA